

## 1) Zein edo zenbat ekosistematan bizi dira aingirak?

Leku jakin bateko izaki bizidunek eta ingurune fisikoak, eta elementu horien guztien arteko loturek osatutako multzo bitan bizi dira, hau da, bi ekosistematan.

### EKOSISTEMAK

#### Lehorreko ekosistemak:



Honelako ekosistemetan bizi diren izaki bizidunek **airea** arnasten dute. Ingurunea airea da.

#### Uretako ekosistemak:

Honelako ekosistemetan bizi diren izaki bizidunek uretan hartzen dute arnasa. Honetan bizi dira aingirak. Baina honen barruan bi mota daude: ur gazikoa eta ur gezakoa.

## 2) Zein beste bizidunekin dute harremana?

Uretako izaki bizidun guztiekin mikroskopikoak (bakterioak, protozooak, ...) eta makroskopikoak (algak, poriferoak, zelentratuak, anelidoak, moluskuak, eta, horren barruan, gastrapodoak, bibalbioak eta zefalopodoak). Krustazeoekin, miraepodoekin, araknidoekin eta intsektuekin ere izaten dituzte harremanak, hau da, artropodo guztiekin. Eta, bukatzeko, ornodunek ere badituzte harremanak aingirekin, adibidez; arrainek, anfibioek, narrastiek eta hegaztiek.



Beste batzuen artean, angula eta aingiren ekosisteman egon ahal diren izaki bizidunak.



**3) Zer gertatuko litzateke angula eta aingiren harrapariak asko ugarituko balira? Eta aingirak berak asko gutxitu edo ugarituko balira?**

Bi kasuetan ekosisteman desoreka bat sortuko litzateke. Hots, angula edo aingiren harrapariak asko ugaritzean angula edo aingira gutxiago egongo lirateke, eta haiek jandako izaki bizidun gehiago; eta haien elikagaia murriztuko litzateke. Aingirak asko ugaritzean, jaten dituzten arrainak murriztuko lirateke.

**4) Zer zerikusia izan dezake euri azidoak, adibidez aingirekin?**

Euri azidoa kutsadura-mota da. Euria zertxobait azidoa da, baina, bertan airean dauden zenbait substantzia toxiko disolbatzen direnean, azidoagoa bihurtzen da. Beraz, euri azidoa itsaso, ibai... eta abarretako urekin nahasten denean, ur horiek kutsatu egiten ditu, eta, ondorioz, hor bizi diren izaki bizidun batzuk hil egin daitezke eta bertako ekosistema apurtu.

## 5) Zer gerta liteke aingirekin...

### 5.a.) Klima aldatzearen ondorioz Golkoko korrontea aldatuko balitz? Zergatik?

Klima aldatuko balitz, airearen norabidea aldatuko litzateke, eta horrekin batera, itsasoko korrontek ere aldatu egingo liriateke. Beraz, joan behar ez genukeen ekosistemetara abiatuko ginатеke. Horrekin batera, ekosistema ezberdinetan egotearen ondorioz, elikagai desberdinak jango genituzke, eta, beharbada, ezingo ginатеke berriro ere Sargazoetako itsasora bueltatu.

### 5.b.) Ibaietan presa eta oztopo gaindiezinak jarriko bagenitu? Zergatik?

Ezingo ginатеke ibaietan hazi, oztopoak direla eta. Beraz, beste leku bat bilatu beharko genuke hazi ahal izateko. Baina presa edo oztopoak gu ibaiaren barruan gauden bitartean jarriko balituzte, ezingo ginатеke Sargazoetako itsasora bueltatu eta ezingo genituzke arrautzak behar diren tokian jarri; eta, denborarekin, behar ez dugun ekosisteman egoteagatik, desagertzen joango ginатеke.

### 5.c.) Ibaiak zikinduko bagenitu? Zergatik?

Ibaiak zikinduko bazenituzte, hauek kutsatuz joango liriateke gutxika-gutxika, eta bertan bizi diren animaliak eta arrainak hil egingo liriateke, horien artean gu. Dakigunez, aingirak ibaietara goaten gara hazi ahal izateko; baina zer gertatuko litzateke zuek guztiok ibaia kutsatuko bazenute? Ezingo ginатеke horrelako leku kutsatu batean bizi, zakar, poltsa, lata eta abarren artean. Beraz, denborarekin, hiltzen joango ginатеke.

### 5.d.) Sargazoetako edo beste tokietako itsasoa zikinduko bagenu? Zergatik?

Itsasoak zikinduko bazenituzte, bertako animaliak hil ez ezik, gure aingirakumeak hilko zenituzkete, bertan jartzen baititugu geure arrautzak. Zakarrak itsasora botatzean, aingirakume txikiak hilko zenituzkete. Eta, aingirakumeak ez balira itsasotik irtengo, ezingo liriateke ibaietara iritsi, eta, horrekin batera, ezingo lituzkete beren aingirakumeak izan. Gutxika-gutxika, beraz, desagertzen joango ginатеke.

### 5.e.) Angula gehiegi arrantzatuko bagenu? Zergatik?

Denborarekin gero eta aingira gehiago arrantzatzen dituzue, eta hori gure amaiera izan daiteke. Arrantzatzen bagaituzue, normala denez, gero eta aingira gutxiago egongo dira. Pixkanaka-pixkanaka gutxiagotzen joango gara, eta azkenean ez da aingirarik egongo.

